

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

LEGYS enpresak baliabide dezente behar ditu gure asmoa gauzatzeko. Gure asmoa kudeatzen saiatuko gara, preziorik onenean kalitaterik onena lortzeko. Horrela, ekoizpen-kostuak hobeto kudea ditzakegu. Kostu horiek denboraren arabera alda daitezke, kalitatea hobetzeko eta etxex etxeko janari-zerbitzua hobetzeko, gure produktuen eta zerbitzuen kalitatea hobetuz.

LEGYSen, baliabide fisikoak, baliabide intelektualak, finantza-baliabideak eta giza baliabideak beharko ditugu.

- **Baliabide fisikoetan**, gure janari-produktuak ekoizteko behar ditugun ondasunetan oinarritzen da: horietan, sukaldeko tresnak aipa daitezke, hala nola, mahaiak, aiztoak eta bestelako tresnak. Era berean, beste motatako baliabide fisikoak behar ditugu; produktu bukatua sortzekoak direnak; Pasta, gazta, ogia, tipula...
- **Baliabide intelektualetan**, garrantzitsua izango da gure produktu bakoitza patentatzea, gure **LEGYS** markarekiko izen batekin definituta.
- **Finantza-baliabideetan**, gure finantza-baliabideak gure aurrezkietan oinarritzen dira batez ere. Etorkizuneko irabaziak ia osorik inbertituko lirateke **LEGYS**en hobekuntzan, eta, gainera, gure produktu bakoitza hobetzeko kapitala handitzea ahalbidetuko digun kanpo-inbertsio posible bat.
- **Giza-baliabideetan**, gure enpresaren giltzarririk garrantzitsuena da, zeren eta **LEGYS**eko kide guztiek egiten duten lana eta ematen duten ezagutza.

